

2008. urtean, Euskal AEko esportazioak % 6,7 gehitu ziren eta inportazioak % 7,1

Atzerriarekiko merkataritza saldoak 214 milioi euroko defizita izan zuen

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko **esportazioetan** 19.888,4 milioi euro lortu ziren 2008. urtean, hau da, 2007. urtean baino 1.254,1 milioi gehiago. Horrela, % 6,7ko gehikuntza nominala izan zuten.

Urte horretan inportazioak 20.102,3 milioi eurokoak izan ziren, 2007. urtean erregistratu ziren datuen aldean % 7,1 altuagoak. Datu horrek kontrajarrita dauden osagai bi ditu: alde batetik produktu mineralen eta energetikoen inportazioak % 25,5 gehitu ziren, baina bestetik produktu ez-energetikoen inportazioek -% 0,8 egin zuten behera.

2008. urtean, EAEko ondasunen esportazioek **Espainiako esportazioek** (% 3,7) baino dinamismo handiagoa izan zuten; bestalde, **Espainiako inportazioen** uzkurdurak nabarmenagoak izan ziren, % 0,6 gehitu ziren.

1. taula.- Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2007-2008. Mila eurotan.

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	2007	2008	Δ %	2007	2008	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	18.634.277	19.888.399	6,7	18.762.141	20.102.335	7,1
EKIZKIN MEAZKOAK ETA ENERGIAZKOAK	1.471.953	1.785.800	21,3	5.657.907	7.100.237	25,5
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	17.162.324	18.102.599	5,5	13.104.234	13.002.098	-0,8
ARABA						
GUZTIRA	4.942.971	5.289.406	7,0	3.359.053	3.279.374	-2,4
EKIZKIN MEAZKOAK ETA ENERGIAZKOAK	7.856	6.952	-11,5	54.950	47.244	-14,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	4.935.115	5.282.454	7,0	3.304.104	3.232.130	-2,2
BIZKAIA						
GUZTIRA	7.567.065	7.983.875	5,5	11.375.006	12.901.329	13,4
EKIZKIN MEAZKOAK ETA ENERGIAZKOAK	1.431.651	1.743.845	21,8	5.548.403	7.000.036	26,2
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	6.135.414	6.240.030	1,7	5.826.603	5.901.294	1,3
GIPUZKOA						
GUZTIRA	6.124.241	6.615.118	8,0	4.028.082	3.921.632	-2,6
EKIZKIN MEAZKOAK ETA ENERGIAZKOAK	32.446	35.003	7,9	54.555	52.957	-2,9
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	6.091.794	6.580.115	8,0	3.973.527	3.868.675	-2,6

Iturria: Eustat

EAEko 2008ko ekitaldiko **merkataritza saldoak** (esportazioak ken inportazioak) 213,9 milioi euroko defizita izan zuen; hau da, 2007. urtearen aldean 86 milioitan gehitu zen defizit hori. Ildo horretatik, esportazioen estaldura-tasak ehuneko sei hamarren egin zuen behera: 2007an % 99,3koa zen eta 2008an % 98,9koa. Bestalde, Espainiak 2008. urtean % 66,7ko estaldura-tasa zuen; merkataritzako defizit kronikoa zuen: 2008. urtean 94.000 milioi eurora helduta.

EAEra itzuliz, hemen, produktu ez-energetikoen saldoa aurreko urtekoa baino handiagoa izan zen: 2008. urtean 5.100,5 milioi euroko saldoa eta 2007. urtean 4.058,1 milioikoa. Produktu ez-energetikoen estaldura-tasak nabarmen egin zuen gora: 2007. urtean % 131,0koa izan zen eta 2008. urtean % 139,2koa.

Eremu geografikoak aztertuta, azpimarratzekoa da Euskal AEko merkataritza saldoak izan zuen gorakada handia **Europar Batasunarekin** alderatuta; izan ere, 2007. urtean 2.624,3 milioi euroko superabita izan zuen eta 2008. urtean 3.519,6 milioikoa. Bestalde, estaldura-tasak ehuneko hamar puntu gehiagoko igoera izan zuen: 2007an % 126,0koa zen eta 2008. urtean % 136,3koa.

Produktu ez-energetikoen transakzioei dagokienez, egoera hobetu egin zen; 2007. urtean Europar Batasunarekin 3.443,0 milioi euroko saldo positiboa izan zen eta 2008. urtean 4.082,6 milioi eurokoa. Horrez gain, estaldura-tasa ere hobetu zen, 2007ko % 139,1etik 2008ko % 147,7ra.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren xede eta jatorri diren herrialde nagusiak. 2008. Mila eurotan.

HERRIALDEAK	ESPORTAZIOAK	HERRIALDEAK	IMPORTAZIOAK
GUZTIRA	19.888.399	GUZTIRA	20.102.335
Frantzia	3.512.739	Errusiar Federakundea	3.316.128
Alemania	3.061.667	Alemania	2.590.950
Estatu Batuak	1.492.827	Frantzia	1.985.869
Italia	1.338.904	Italia	1.234.692
Erresuma Batua	1.082.296	Txinako Herri Errepublikak	1.118.415
Portugal	1.006.321	Irango Errepublika Islamiarra	986.708
Belgika	997.936	Erresuma Batua	904.674
Herbehereak	416.247	Herbehereak	609.368
Txinako Herri Errepublika	392.384	Belgika	445.877
Polonia	353.774	Trinidad eta Tobago	420.348

Iturria: Eustat

Herrialdeka, Euskal AEko esportazioen erdia baino gehiago bost herrialdek hartu zuten: Frantzia (% 17,7), Alemania (% 15,4), Ameriketako Estatu Batuak (% 7,5), Italia (% 6,7) eta Erresuma Batua (% 5,4). Halaber, gure inportazioen erdia baino gehiago bost herrialdetatik dator: Errusia (% 16,5), Alemania (% 12,9), Frantzia (% 9,9), Italia (% 6,1) eta Txina (% 5,6).

Produktuen arabera azterketan azpimarratu behar da sailkapenaren lehenengo 10ek esportazio guztien % 41 zutela. Besteak beste, horietariko hiru *garraiorako materialaren* muga-zergetan sartzen dira: *ibilgailuen atalak eta osagarriak*, *salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* eta *5-10 pertsonarentzako turismoak*; hauek guztira esportazioen % 16,3 zuten. Sailkapenaren bigarren postuan *petrolio olio*en partida zegoen, *produktu mineralen* muga-zergetan barruan. Bosgarren postuan *kautxuzko pneumatiko berrien* partida zegoen, *plastiko eta kautxuen* barruan. *Metalen eta horien manufakturen* atalak bere lau partidak sailkapenaren lehenengo 10en artean kokatu zituen: *burdinazko edo altzairuzko profilak*, *hodiak eta barrak*. Eta, azkenik, zortzigarren postuan zeuden *txorroten produktuak eta antzekoak*, honako muga-zergetan barruan: *makinak eta gailuak*, *material elektrikoa*.

Euskal AEk esportatu dituen partida nagusiak. 2007-2008. Mila eurotan.

SAILAK	2008	%	2007	Δ % 08/07
Guztira	19.888.399		18.634.277	6,7
8708. Ibilgailu automobilen parteak eta osagarriak	1.466.141	7,4	1.434.070	2,2
2710. Petrolioazko olioak	1.394.981	7,0	1.271.553	9,7
8703. Autoak 5-10 pertsonetarako	899.743	4,5	815.327	10,4
8704. Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	877.092	4,4	856.174	2,4
4011. Kautxuzko pneumatiko berriak	826.578	4,2	843.462	-2,0
7304. Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak	763.019	3,8	650.863	17,2
7216. Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	593.537	3,0	535.450	10,8
8481. Txorrotetako artikulak eta antzeko organoak	513.527	2,6	509.800	0,7
7214. Aleatu gabe dauden burdinazko edo altzairuzko barrak	455.117	2,3	124.332	266,0
7326. Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	307.581	1,5	235.242	30,8

Iturria: Eustat

Muga-zergak kontuan hartuta, inportazio handienek portaera ezberdina izan zuten: *produktu minerelek* eta *material elektrikoak* % 25,5eko eta % 3,1eko hazkundea izan zuten hurrenez hurren, baina *metalek* eta *horien manufakturak* eta *garraiorako materialak* -% 1,0 eta -% 7,9 egin zuten behera.

Lurraldeka, 2008. urtean esportazioen bilakaera oso homogeneoa izan zen hiru lurraldeetan; Gipuzkoan % 8 gehitu zen esportazioen kopurua, Araban % 7,0 eta Bizkaian % 5,5.

Inportazioak aztertuz gero, lurralde bakoitzean bilakaera jakin bat eman zela azpimarratu behar da. Bizkaian inportazioek hazkunde handia izan zuten, % 13,4koa, batez ere *produktu mineralen* (% 26,2) eta *material elektriko*en (% 5,3) hazkundeak eraginda. Araban eta Gipuzkoan, aldiz, inportazio kopurua murriztu egin zen: -% 2,4 eta -% 2,6 murriztu ziren inportazioak, hurrenez hurren.

Araban *garraiorako materialak* izan zuen beherakada handiena (-% 12,1), eta Gipuzkoan inportazioen beherakada orokorra izan zen, ez epigrafe bakarrari eragindakoa.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp